

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

2 positibo berri
2.276 positibo guztira*
*Hernanin 63, Astigarragan 21

1.592 hildako EAEn
18 UCIn, EAEn

NAFARROAN

0 positibo berri
5.352 positibo guztira
Sendatuak: EAE 17.601, Nafar. 8.117

Kantari zein musika doinuekin gogorarazi zieten herritarrei, auzoz auzo, egun bereziak datoze

Kalera atera ziren herriko musikari eta abeslariak, larunbat arratsaldean, Preludioa ezohiko moduan eskaintzera, Hernaniko auzo eta txoko ezberdinetara bisita eginda. Horrela izango da, San Joan jaiei egunetan ere.

HERNANI PRELUDIOA

San Joan jaiak ez dira ospatuko aurten, ezagutzen ditugun moduan, COVID-19aren eraginez. Eta ezin izan dute eskaini, ohiko moduan, jaiak iragartzen dituen Preludio kontzertua, Atsegindegiko taula gainean makina bat musikari, abeslari eta dantzari elkartuta, doinu, argi eta kolorez betetako ikuskizunean.

Baina horretarako aukerarik gabe ere, ez diote zitari hutsik egin nahi izan herriko musikari eta abeslariak, eta keinu bat egin zioten larunbat arratsaldean: auzoz auzo eskaini zuten Preludioa, talde ezberdinetan.

Horrela, elkarrekin aritu ziren Hernani Musika Eskolako Dakapo abesbatza eta akordeoi orkestra, eta Zaharren Egoitzan hasi zuten ibilbidea, adinekoei

eta bertako langileei emanaldi berezi bat eskainita. Txantxilla-ko plazan eta Biteri aurrean ere aritu ziren kantari eta musika jotzen, ondoren.

Hernaniko Musika Bandak, berriz, Plazan hasi zuen ibilbidea, eta Zinkoenea eta Oblatosen aritu ondoren, Karabel auzora jaitsi ziren musikariak. Zikuñagan eta Portun eskaini zuten ordu laurdeneko emanaldi bana, gero; eta Elizatxon bukatu zuten, iluntzean.

Eta musika doinuak zabalitzen aritu zen Hernaniko Txistulari Banda ere. Haiek, Gabriel Zelaian hasi zuten ibilbidea, eta Florida eta Etxeberri auzoetara egin zuten bisita ondoren.

Horrela, bateko eta beste-ko, herriko makina bat auzo eta txokotara eraman zituzten musika doinuak eta ahots go-



Dakapo abesbatzako kideak, Zaharren Egoitzaren aurrean kantari. Ikusi bideoa 'www.kronika.eus' web orrian.

zoak. Eta bisitarik gabe geratu zirenek, datorren astean izango dute aukera, horiekin gozatzeko.

Izan ere, Preludio berezi honen formula berdintsua baliatuko dute San Joan jaiei dagokien egunetan ere: auzoz auzo ibiliko dira musikari eta abeslariak. **K**

San Joan suak egitea debekatuta, aurten

Ez da egingo Plazako ohiko sua, eta auzoetan egin ohi direnak ere debekatu ditu Udalak.

HERNANI SAN JOAN BEZPERA

San Joan jaietako ekintza berezietako bat izaten da, urtero, San Joan egunaren bezperan egiten den sua. Baina festarik ez da izango aurten, bertan behera uztea erabaki baitzuen Jai Batzordeak, COVID-19aren ondorioz ezarritako osasun alarmagatik, eta ekitaldietan jende pilaketak saihesteko asmoz. Hori horrela, ez da egingo Plazan piztu ohi den sua ere.

Hala jakinarazi du Hernaniko Udalak: «herritarren segurtasuna bermatze aldera, San Joan gauean egin ohi

diren suak debekatzea erabaki dugu. Hortaz, ez dugu egingo Plazan egin ohi dugun sua, eta debekatuta daude herritarrek auzoetan egin ohi dituztenak ere».

Beraz, herritarrek ezingo dute elkarrekin gozatu aurten, urteko egunik luzeenaz, eta ezta gau motzenaren *magiaz* ere, suaren inguruan bilduta.

Plazako sua ez ezik, egin gabe geratuko dira aurten, Akelarrearen antzerkia, herritarren aureskua, eta San Joan Kantaita ere. Beste modu batera bizitu beharko dute gau berezia hernaniarrek, aurten.



Zikuñaga auzora ere egin zuen bisita Hernaniko Musika Bandak, eta bertako kirol pistan eskaini zuen emanaldia.

ALAIA

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA

HORTZ ESTETIKA

AHO KIRURGIA

INPLANTEAK

PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA

PERIODONTZIA

ORTHOAPNEA

ODONTOPIEDIATRIA

ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK

TELERADIOGRAFIK

3D SCANNERRA

AHO BARRUKO SCANNERRA

KIRURJIA NABEGATUA

ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00

Larunbatetan: 08:30 - 14:00

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- Zerbitzu partikularrak eta asperu etxeekin
- Beilatokiak
- Erransketa
- Lekualdatzeak
- Eskalak, korak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

